MANTEROLA'TAR GABIREL

EIBAR'tik I927'ko Aziĺa'ren I9'n.

Piarres Lafitte yaunari.

Ustaritz'en.

Aguŕ ene aizkide: Zuri lenegoz idaztean, parka eskatu beaŕean aurkitzen naz zure eskutitzari erantzutea geyegitxo atzeratu dodalako. Eta miĺeskeŕ "Euskal-zaleen Biltzaŕean" saŕtu nozulako emonaz, emen bialtzen dautzudaz IO pranko.

Eta geure alkaŕ ezagutzearen gomutaki bat euki dagizun idazki onegaz batean neure oleŕkietako idazti "Goi-Izpiak"en iyeki bi bialtzen dautzudaz; bat zeuretzat eta bestea Laŕesoro'ko ikastetxeko kutun edo idaztitegirako.

Ikusiko dozunez, idazti onek akatz askotxo ditu; baña ordez kristiñau ikas-bideko mami gozoz betetan alegindu nintzan. Onexek dira neure bizian atarako lenengo bertso edo itz-neurtuak eta egiñean be, gaur bertan dira amaŕ urte lenengo itz neurtuak atara nintuala. Baita oŕ doakizu Laŕesoro'ko ikastetxea-ren aŕgazki bat. Uŕutitik atarea da baña tira..

Oso atsegin izan yakun oŕa egin gendun yoan etoŕia, eta Yauna lagun datoŕen urtean be baŕiztuteko asmoa daukogu.

Beste barik gaurkoz, aguŕ biotzetiko bat orko gure ezagun Passicot eta Laŕalde eta Ducassó'~~ri~~ yaunei, eta agindu azkatsun osoz zure aizkide In Xto.

Manterola'taŕ Gabirel'i